



**ORIOK OUDALA**

**Euskaraz**  
**bizi-bizi**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2016ko ekainaren 27a, astelehena

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehen

**HASTEKO ORDUA:** 18:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 18:17

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

**Zinegotziak**

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) eta Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri, kanpoan daudelako, eta beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



## Gai-zerrenda

- 1.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2015eko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 2.- Onartzea, egoki bada, izaera urbanoko ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaizkion karga-tasen aldaketa, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituenak.
- 3.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko zarata-mapa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Zaragueta Herri Eskolako guraso batzordearen arteko lankidetzaren hitzarmena eta alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

## Esan-eginak

### 1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2015EKO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2015eko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2016ko maiatzaren 31ko GAO (102. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, oharra aurkezteko, 2016ko ekainaren 1ean hasi zen eta ekainaren 17an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Udalaren 2015eko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.



## 2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IZAERA URBANOKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGARI APLIKAGARRI ZAIZKION KARGA-TASEN ALDAKETA, ONDORIOAK 2017KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DITUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzordeak diktamena eman du gaiari buruz 2016ko ekainaren 24an egindako bilkuran.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2016ko maiatzaren 31n egindako ohiko bilkuran:

***ONARTZEA** izaera urbanoko ondasun higiezin gainerako zergari aplikagarri zaizkion karga-tasen aldaketa, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituena.*

- 0,3964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- 0,17204, gainerako ondasun higiezinatarako.

Udalbatzarrak 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkuran onartutako izaera urbanoko ondasun higiezin gainerako zergari aplikagarri zaizkion karga-tasen aplikazio praktikoak ekarriko luke 2017. urtean udal baliabide ekonomikoak 1.080,47 eurotan gutxitzea, 2016ko diru-bilketarekin alderatuta; beraz, komeni da udal erabaki hori indarririk gabe uztea eta beste bat proposatzea, aukera emango duena 2017an, behin izaera urbanoko ondasun higiezin katastroko balioak eguneratuta, Udalaren diru-bilketa handitzeko 49.581,93 eurotan; hori lortzen da zona industrial edo tertziarioetan kokatzen ez diren gainerako ondasun higiezinentzat 0,184ko karga-tasa proposatuz, hau da, 2015ean indarrean egon zen karga-tasa bera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko ekainaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAICA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BERTAN BEHERA ETA ERAGINIK GABE UZTEA** Udalbatzarrak 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkuran hartutako erabaki hau: lehen onarpena ematea izaera urbanoko ondasun higiezin gainerako zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituena. Aldaketa horren arabera, 0,17204ko karga-tasa ezarri zen zona industrial edo tertziarioetan kokatuta ez dauden gainerako ondasun higiezinatarako.

**2.- LEHEN ONARPENA EMATEA** izaera urbanoko ondasun higiezin gainerako zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituena. Aldaketa horren arabera, honako karga-tasak ezarriko dira:



- 0,3964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- 0,184, gainerako ondasun higiezin etarako.

**3.- Erabaki hau eta hasitako espedienteak JENDAURREAN** jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedienteak aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkeztu dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteke lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkeztu daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluko zehazten dituen tokietan.

**e) Zein organoren aurrean:** Udaltzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

### 3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZARATA-MAPA.

Udaltzarrek gaiaren berri jakiten du.

Orioko udaltzarrek honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2016ko apirilaren 5ean egindako ezohiko bilkuran:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko zarata-mapari.

**2.- Zarata-mapa JENDAURREAN JARTZEA** hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkiak argitaratuz, interesatu guztiek aukera izan dezaten aztertzeke eta, hala nahi badute, alegazioak aurkezteke. Horren dokumentazioa jendaurrean izango da Orioko Udaleko bulego teknikoan eta Udalaren webgunean ([www.orio.eus](http://www.orio.eus)).



Orioko zarata-mapa jendaurrean jartzeko iragarkia 2016ko apirilaren 20ko GAOn (73. zenbakian) eta 2016ko maiatzaren 12ko EHAAn (89. zenbakian) argitaratu zen; espedientearen jendaurreko epea, beraz, 2016ko apirilaren 21ean hasi zen eta 2016ko ekainaren 13an bukatu zen.

Jendaurreko epean ez zaio inolako alegaziorik aurkeztu Orioko zarata-mapari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko ekainaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko zarata-mapa, inolako aldaketarik egin gabe 2016ko apirilaren 5eko udalbatzarraren ezohiko bilkuran hartutako lehen onarpeneko erabakiarekiko.

**2.- ARGITARATZEA** Orioko zarata-maparen behin betiko onarpenaren erabakia EHAAn eta GAOn.

**3.- BIDALTZEA** Orioko zarata-mapa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailordetzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, formatu digitalean, azterketaren agiri eta irudiekin batera.

Hori guztia, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa betez.

**4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA ZARAGUETA HERRI ESKOLAKO GURASO BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA HITZARMEN HORI SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Euskara eta Hezkuntza batzorde informatzaileak 2016ko ekainaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Zaragueta Herri Eskolako guraso batzordearen arteko lankidetza-hitzarmenaren testua. Hitzarmenaren xedea honako hau da: Zaragueta Herri Eskolako guraso batzordearen jardura eta proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

**2.- AHALMENA EMATEA** alkateari lankidetza-hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.



Behin udalbatzar honetako gai-zerrendako gai guztiak aztertu eta erabaki ondoren, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta alkateari eskatzen dio ezohiko udalbatzarretako gai-zerrenda egiterakoan eskari eta galderen gaia ere sartzeko, herritarren parte-hartzeari bide emateko; are gehiago, kasu honetan bezala, udalbatzarra egun bat aurreratu denean, San Pedro jaien hasierarekin batera izatea saihesteko, zeren eta, udalbatzarra egun bat beranduago egin izan balitz, asteartearekin, ohiko bilkura bat izango zen eta, beraz, gai-zerrendan nahitatez beharko zuen eskari eta galderen gaia sartuta.

Gotzon Igoa zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta bertaratuei honako adierazpen instituzionalaren testuaren berri ematen die: Aniztasun eta identitate sexualen aldeko adierazpena, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen eskubideak aldarrikatzeko, 2016ko ekainaren 28an nazioartean ospatzen den LGBTBI kolektiboaren eguna dela-eta.

Gotzon Igoa zinegotziak adierazten du testua Udaleko talde politiko guztiei bidali zitzaizela eta EH Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoen adostasuna jaso duela dagoeneko, baina EAJ talde politikoarena falta dela. Alkateak erantzuten dio, esanez udalbatzar hau bukatu bezain laster bilduko dela bere talde politikoa, adierazpen instituzional horren testua aztertzeko eta, egoki ikusiz gero, adostasuna emateko. Ondoren, bihar bertan, testua Udalaren webgunean argitaratuko litzateke, Udala osatzen duten talde politiko guztien adostasuna adieraziz.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**